

OYARZUN-GO

NEKAZARITZA ETA GANADUEN BILLALDIKO

LEGEAK



Oyarzungo Nekazaritza eta Ganaduen billaldiya, datorren Uztaren 5-an idiki eta 7-an ichiko dana, sari-enlate otsandikuarekiñ, egingo da ondoren agertzen diran muga oeki dagokiyola:

1.^{ko} Billaldira sartu nai duten ganadu, egazti eta lur-frutu guztiyak entregatu biarko dira astelen Uztaren 5-an, goizeko zortziyetaik amabiyetara bitartian, Bilguma antolatzailliak siñalatzen duen lekuan. Juezak erabakiko dute, jendiak parte artu gabetanik, ala ganadu nola gañerako gauza billalldiyan artu litezkenak, berezirik, beraren iritzian artzeko diña ez diranak. Ontarako, kontuan iduki biar da billaldi au ez dala feriya bat, eta, onegatik, alferrik izango litzakela toki ematia, billalldiyari eranzun ez lezateken gauzai.

2.^{garren} Billalldiyan artua izaten den lur-frutu, egazti edo ganadu bakoitzaren jabiari emango zayo papercho agirizko bat bere eskubiderako.

3.^{garren} Juezak esango dute zer lekutan jarri biar diran ganaduak, ala nola gañerako lur-frutu eta gauza guztiyak.

4.^{garren} Ganaduen jabiari emango zaye ayek idukitzeko estalpea, baña beren kontura izango da bazka edo janaria, eta au ekartzen ez dutenak arkituko dute bertan modu onian.

5.^{garren} Billaldira datorren ganadu bakoitzaren jabiak agertu biarko du beria zuela aurreko sei illabetietan ere.

6.^{garren} Billalldiyan sartutako ganadu eta egaztiyak, eziñ beren jabiak kendu edo ezkutatuko dituzte jendiak ikusteko orduetan, baldiñ eri jartzen ezpadira.

7.^{garren} Diputazio chit goituak lendabizi erosten ezpaditu, salgai izango dira, beren jabiak ala nai badute, ganadu eta gañerako gauzak; baña, saldurik ere, beren jabe berriyak eziñ eramango dituzte billalldiya bukatu arteraño.

8.^{garren} Billalldiyak irauten duen egunetan, goizeko zortziyetatik amaiketara, jendiak ikusi litzake ganadu eta beste gauza guztiyak; baña, amaiketatik amabiyetara bitarteko azken ordua, Juezentzat bakarrik gelditzen da.

9.^{garren} Festen azaldean esaten dan bezela, Uztaren 7-an, arratsaldeko bostetan, egingo da sari-emaldi aundiya.

Juezai dagokiyonez, ondoren agertzen diranak izango dira beren eskubide eta legeak:

1.^{ko} Billaldi ontan Juez izan biar dutenak lenez aurretik siñalatuak izango dira, Oyarzunen egon ditezen Uztaren 4-an, au da, Billaldiya idikitze bezperatik.

2.^{garren} Juez siñalatuak izango dira aski, batzuek gauza batzuetako eta besteak besteetako apartaturik, talde bakoitzak beren lanak ondo egiteko modua izan desaten. Guztiyen nagusi edo buru izango da Pro-bintziyako diputadu jaun bat.

3.^{garren} Juez batzuen kontura egongo da agintzia zer lekutan eta nola ganadu, egazti, lur frutu eta gauza guztiyak jarri biar diran, lan au al bada egiñik oen baliyuaren erara, saill bakoitzian ipiñirik, biar dan moduan, sari bat bera irabazi nai dutenak.

4.^{garren} Juezak izango dute eskubidia nai dituzten agergarri guztiyak ganadu eta gauza bakoitzaren jabiari eskatzeko, zeña egongo dan ematera obligatua.

5.^{garren} Juez-taldiak bilduko dira berak ala nai duten guztiyan tokatzen zaizkaten saill bakoitzeko sariyak nola eman tratatzeko.

6.^{garren} Juez-talde guztiyak bilduko dira Uztaren 6-an, goizeko zortziyetatik amabiyetara, edo biar lezateken denboran, azkeneko erabaki eta sari-emaldiya prestatzeko.

7.^{garren} Juez guztiyen iritziyak batera ezpaletorzke, erabakiyak artuko dira iritzirik geyena dagon aldetik.

8.^{garren} Juezen azken-erabakiyen kontra alchatzeko ez du iñorkere eskubiderik izango.

9.^{garren} Sari batzuek irabazi gabe geldituko balira, Juez guztiyak, batean, izango dute eskubidia billallditik kanpora emateko, baldiñ ontarako arrazoi zuzenik balitz.

Diputazioko Dianagusia,
MANUEL LIZARITURRY.

